

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako Udalaren 2020ko ekainaren 11ko erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, COVID-19aren ondorioz sortutako krisi sozial eta ekonomikoak eragindako familiei diru-laguntzak emateko deialdia egin zen

BDNS(Identif.): 514978

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>)

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/514978>)

Lehenengoa. Onuradunak

Zuian erroldatutako familiak. Erroldak 2 urteko aintzinasuna izan behar du alarma-egoera ezarri zen egunetik, hau da, 2020ko martxoaren 14tik, atzera. Eskatzaileen familia osatzen duten gutxienez kideetako bat ERTEan edo langabezian egon behar du edo egon behar izan du, 2020ko martxoan alarma-egoera ezartzearen ondorioz. Egoera horrek gutxienez 2 hilabetez iraun behar du, eta, egoera horren barruan, familiaren hileko diru-sarrerara haztatuek ezin dute gairitu 1,5eko proportzioan LGSa (1.425 euro).

Bigarrena. Xedea

COVID-19aren izurriaren eragina jasan duten familia zaurgarrienen beharrak artatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko ekainaren 11n onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 20.000 eurokoa da.

Diru-laguntza 200 euroko ordainketa bakarrean ordainduko da, familia-unitateko pertsona bakoitzeko. Muga 1.000 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2020ko abuztuaren 14ra arte.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2020ko ekainaren 11n

Alkate-udalburua

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA